

BARRAREN ERDIAN

Anjel LERTXUNDI

Barraren Erdian

AZKUEREN 'Euskalerrriaren Yakin-tza-ko' ipuinen artean bada bat guztiz estrainoa: 'Gernikako batzar bat' du izena eta, hizkera guztiz garbizalea izateaz gain, politikoa du gaia. Ipuinak sasikoa dirudi, adabakika ehundua eta ipuin tradizionalen soinekora desegoki josia. Ez dakart hona balio literarioengatik, progrea uste dugun politikarienganako eszeptizismoaren antzina bateko egokia iruditzen zaidalako baizik (XIX mendea da, hainbat gauzetan, gure iragana, eta ez da urrutirago heltzen gure begirada!).

Ipuin horretan mundakarek Peru gurea izendatu dute beren Fiel (administrazioaren esanak herrian betearazten dituen ordezkari) eta, legeak agindu bezala, Gernikako Batzar Nagusi batera doa Peru bere kredentzial politikoak erakustera. Paperak ateratzera doanean, hiru sagar gazmin eta talo puska bat erori zaizkio lurrera. Gainerantzeko batzarkideak, euskaldunak nahiz euskaldun motzak (*sic*, orijinalean; horra ñabardura egokia *euskaraz ez zekite-nak* izendatzeko), Peruz trufatuko dira. Txantxa handik, ziri hemendik, halako

batean Batzar Nagusietako politikari profesional batek galdetzen dio:

- Zuen baserritxoan ez al dago zu baino burutsuagorik?

Eta Peruk erantzun:

- Bai, ta ez gitxi. Harek barriz beste arazo handiago batzuetara zuzendu ohi dabez buruak. Zuekana neu, naizentxo hau, bidaldu nabe.

Ez naiz Peruren ipuinari *sotto voce* darrion eta gaur moda-modakoa den mezuarekiko itsu. Tentu politikariekin! dioen urrutiramendu hotz hori ez da gaurkoa. "Diogenesen linterna behar da han eta hemen gaur-gaurko gizon politiko handiak aurkitzeko", idazten zuen Errepublika garaian Josep Pla-k.

Baina gaurko urrutiramendua ez da politikarienganakoa; politikagintza bera ere kilikoloan dago, pentsamendu politikoaren berrikuntza ez baitator politikagintzaren sorotik, politikagintzaren inguruan dauden zangetatik baino. Mende honek teoriaren eta praxiaren arteko ezteiak bizi uste izan ditu oraintsu arte, baina mendearen azken arnasotan teoriak enbarazo egiten dio praxia politikoari: malgutasunaren izene-

an, politikagintza ganbarako bazterrik ilunenean gordetzen ari da printzipioen kutxa.

Baikor izatera saituta ere, gure garaiak aukeran nahiago du Voltaireren 'Kandido-ko' Martin zaharraren etsipen fatalista ("Lan egin dezagun pentsatu gabe: horixe da modu bakarra bizitza eroangarri izan dezagun"), Marxen itxaropen baikor hura baino ("Bizi naizen garaiko baldintza guztiz etsiek itxaropenez betetzen naute").

Propina politikoak

Azkuek bildutako ipuinak oraintsu hamar urtetako anekdota bat gogorarazten dit beti. Telefonoak jo du Itzean. Eskurtsio batera gonbidatu dute don Julio; Lleidako erromanikoa ezagutaraziko dion gidaritzat hartu nahi du lustreko emakume talde batek. Don Julio ahal bezainbat desenkusatu da. Ez dago batere santu: gripe piskat, hezurrrak ajez kraskaturik, lana... Don Juliok telefonoa eskegi du. Libratu da (libratu dela uste du) konpromezetik.

Garaikoetxearen lehen Gobernu autonomikoaren egun latzak dira. Marcelino Oreja Madrileko Gobernuaren delegatu da Gasteizen. Schiller-en 'Wilhelm Tell-eko' epikotasun teatrero baten itxura dute Madrilen eta Gasteizen

arteko tirabirek: Suarez Gessler tiranoa versus Garaiko Tell.

Handik egun batzutara telefonoak jo du berriro Itzean. Areilza da telefonoaren bestaldean. Mutrikuko konteak lustreko emakumeen eskurtsio berera gonbidatzen du berriro:

- Otoi, don Julio... Neu ere banoa eskurtsio horretara... Ondo pasatuko dugu. Garai ezin hobea da Lleidako mendietan ibiltzeko. Gainera... Sekulako hizkirimiri ederrak dauzkat zuri kontatzeko Garaikoetxearen eta Martzelino Orejaren arteko kontentziosoari buruz. Gustatuko zaizkizu...

Don Juliok arnasa hartu du sendo. Ezseptizismoaren militante, aspaldi ikasi zuen politika eta politikariak erlatibizatzen. Ezinbesteko gaitzat dauka *res publica*. Hitzerra atera zaio botepron-toko erantzuna:

- Garbi ikusten dut orain: ez noa! Ez noa inolaz ere!... Napoleon III.enaren eta Bismarck-en arteko kontentziosoaren hizkirimiriak izan balira sikiera!

Ez dakit anekdota benetakoa den, baina *bene trovato* da behintzat. Bi estadista handiek *propinen politika* deitu zaiona (Napoleon III.ak lurralde zenbait anexionatu zuen neutralitatearen ordainetan) osatu zuten eta don Julioen erantzunak transferentziak estabiltatearen ordainetan eskaintzen dituen

politika du gogoan. Anekdotak, aldiberean, ironiaren distantzia ere jartzen du, gure egoeraren hantustea beste lurraldeen eta beste garaien ispilu aurrean biluzik.

Mende honek teoriaren eta praxiaren arteko ezteiak ospatu nahi izan ditu oraintsu arte, baina mendearen azken arnasotan teoriak enbarazo egiten dio praxia politikoari.

Garentxo gu, European

Distantzien ispilua... Urrutiragoxe begiratu beharra, gertukoa konpontzeko. Soroan buru-makur zintzo-zintzo ari denak burua jasotzen du argi aldaketa xumeena antzeman orduko, eguraldiaren nondik norakoaz jabetzeko.

Europa dugu distantzia eta Europaren erronka nagusienak ondorengo ardatzaren inguruan kiribiltzen dira, nola huntza baserri eroriaren hormetan gora: bertako biztanleriaren eta kanpoko giza-uholdeen arteko enkontrua nola gauzatzen den, horrek markatuko du Europaren etorkizuna. Ibaietako barrak oso arriskutsuak izaten dira, ber-

tan biltzen baitira itsasoko urak eta ibaian behera etorritakoak. Zer da itsasoko ur, zer ibaiko, barra horren erdian? Aurki ez dugu jakingo urak bereizten, ez baitira gaurkoak izango inolaz ere.

Saia gaitezen Magrisen bidetik eta imajina dezagun Europa ibai handi bat bezala. Ibai horrek, ordea, ibai-adar asko ditu, sekulakoak batzuk, apalagoak zenbait, eta ibaiak barrarantz daraman bidea berez da trumiltsua. Imajina ditzagun kanpoko giza-uholdeak itsaso modura: bertako uretan bazter guztietakoak daude nahasian, edo orain modan jarri den mestizaia izeneko horretan. Sozioekonomia eta egitate kulturala erabat derrigortu duen zurrunbilo horren hastapenak bizi ditu Europak. Zurrunbiloak erabat kutsatzen ditu justizia, berdintasuna eta askatasuna bezalako kontzeptuak ere. Aise aipatzen da hospitalitatea, arrotza etxeaz jabetzeko arriskurik ez dagoenean. Nekeza da, ordea, solidaritatea, kanpotik datorrenaren seme-alabek zureei lanpostua kentzen dietenean. Zurrunbilo handia, bada, giza-erriak itozteko zorian jartzen dituen etorkizuneko barra horretan. Alemanian aspaldi jo ziztuzten alarma-turutak eta bertako idazle konprometituenean azken urteotako lanak ez dira egitate horrekiko arrotz.

7 EDIZIOA BALORAZIOZKO KAZETARITZA

Italian eta Frantzian ere gero eta usua-
goak dira alertak.

Etorkizuna izendatu, etorkizunaz ihar-
dun. Guztiok dakigu hitzak noiz bihur-
tzen diren madarikazio, arrisku, nork
bere lepoan bihurritutako lazo urkatzai-
le: etorkizunaz dihardutenean. Horre-
gatik, aukeran nahiago izaten dugu
itsu, mutu eta lepoa bere tokian.

Euskal tradizioaren esanera, euskal-
dunok badakigu gure palazio ederrean

ez dela euririk sartzen ateri denean, ez
dela haizerik sartzen ez dabilenean.
Tradizio beraren esanera, izena dara-
man guzti-guztia da. Ez dezagun,
bada, etorkizuna izenda. Ez dezagun,
beldurrezko zerbaiten aurrean begiak
ixten dituen haurrak bezala, geure ka-
butan guztiz kezkarria ikusten dugun
etorkizuna formula.